


### 3. GAIA : Estratifikazio soziala: lana, meritokrazia eta desberdintasun sozialak.

- GIZARTE ESTRATIFIKAZIOA

Gizartek pertsona taldeak modu hierarkiko batean antolatzeko duten joera da. Gizatalde osoen sailkapen egituratua, gizarte batean dirusarien eta boterearen berdintasunik eza iraurarazten duena.

**DESOREKA SOZIALA:** Talde horien arteko desberdintasunak nabariak direnean- distribuzioa egiten da. Baliabideak modu ez orekatu batean banatzen direlako gizartean.soldata media.

Talde horiei **ESTRAKTUAK** edo mailak deitzen zaie. Ondasun eta baliabideak eskuratu eta kudeatzeko orduan desberdintasunak daude.



→ Zer esaten digu?

Estruktura sozial batean mailen artean nola antolatu eta nola mugitzen garen, bere ondasun eta abantailei sarrera izateko.

- Teorian jendea askatasun indibiduala du. Mendebaldeko estatuetan, ekonomia kapitalista, sistema demokratikoa, zuzenbidezko estatu... daude pertsonak askeak dira ikasteko, erosteko, mugitzeko... Hala ere librea da aukeratzeko aukera zehatz batzuen artean. Guztiok ez daukate aukera berdinak, guztiok ez dute formakuntza maila bera, edo harreman sozial egokiak.
- Gizarte mailak kausa estrukturala da eta ezin da azaldu hautaketa indibidualaren bidez ( maileguak, hipotekak, ikastea, talentoa...)
- Soziologoek maila askotan aztertzen dute estratifikazioa , norbanakoarengan duen eraginetik hasi eta mundu guztian izaten diren desberdintasun-patroietara bitarte.

- DESBERDINTASUN SOZIALAK

Desberdintasun sozial terminoak gizarteko kideen artean aberastasun-, prestigio- edo boteremailak ezberdinak diren egoera bat deskribatzen du. Nolabaiteko desberdintasun-maila bat gizarte guzti-guztietan izaten da.

Dena den, desberdintasun sozialeko sistema bat taldeen arteko hierarkia batean oinarritzen denean, soziologoek estratifikazio esaten diote: pertsona talde osoen sailkapen egituratua gertatzen da, eta gizarteko kideen ordainsarrietan eta botere-banaketan izaten diren desberdintasunak betikotu egiten dira.

Desberdintasun sozialak jatorri kolektiboa eta historikoa dute. Belaunaldi batek hurrengora desberdintasun soziala transmititzen duen eran dago oinarrituta estratifikazioa; horrek, kategoriaka antolatutako pertsona taldeak sortzen ditu, beheko mailetatik goikoetara. Desberdintasun sozialak ezin dira indibiduo bakar baten ekintzagatik aldatu. Gainera gizarte oso bat antolatzeko moduarekin dago lotuta.

- KAPITALA

Kapitala eragina izateko baliabideak dira eta kapital ekonomikoa kapital giza legitimatua dagoena da (Dirua...)

Beste kapital motak daude; batzuk diruutan kalkulagarriak dira eta besteak ez ( Adibidez; tituluak bai, baina portaera-irudia-jarrera ez) Lan orduetatik at eskuratu edo pilatzen dira eta denbora librea behar da.

Kapitala baliabdie eta sari sozialak eskuratzeko balio du 4 kapital mota ezberdin daude. Hasteko kapital ekonomikoa (dirua, jabetza materialak, soldata, lurrak) Beste bat kulturala da ( ikasketak, tituluak...) Soziala beste mota bat da (Harremanak, integrazio maila, laguntza sarea) eta azkenik sinbolikoa (ospea)

- ESTRATIFIKAZIO SISTEMAK

Soziologoek maila askotan aztertzen dute estratifikazioa , norbanakoarengan duen eraginetik hasi eta mundu guztian izaten diren desberdintasun-patroietara bitarte.


Soziologoek maila askotan aztertzen dute estratifikazioa , norbanakoarengan duen eraginetik hasi eta mundu guztian izaten diren desberdintasun-patroietara bitarte.

Estratifikazioa unibertetsla da, baina aldakorra. Gizarte desberdinetan aldatu egin da desberdintasuna.

- MAILAK

- ★ Mailakako sailkapena

- Estratuka (baliabideen eskurapen mota) Ez dago pertsonen kontrolpean, jede gehiena klase ertainean kokatzen da, ez da erreala. Kapital desberdinen pilaketa da adierazle objektiboak pertsonen klase zoziala kalkulatzeko balio du. Guztion bizitza egituratzen du. Ze mota dadue? Kalse altua, ertaina, baxua...



- ★ Mailakako esperientziak eta bizitza-aukerak

Estatu bereko pertsonak aukera eta bizi baldintzak antzekoak dituzte. Identitate komunak sortzen dira; klase kultura, balioak, kontsumo estiloak... joera antzekoak dituzte.

- ★ Maila sozialak astiro aldatzen dira, eta belaunaldiz maila mantentzeko joera dago ( familia posizioa, lanpostua...) mugikortasun soziala handiagoa dago gaur egun eta hierarkian mugitu egiten dira, gehiengoak status bera mantentzen dute.
- ★ Sinesmen sistema desberdintasunak mantentzen ditu, sinesmen multzo bati esker, desberdintasunak zilegi bezala agertzen dira, legitimizazio sistema. Pribilegiatuek sinesmenak indartzen dute eta menpekoak aldatzeko interesa dute.

- KLASE SISTEMA EZAUGARRIAK

Klase-sistema bat nagusiki posizio ekonomikoan oinarritutako hierarkia sozial bat da, non eskuratutako ezaugarriek mugikortasun sozialean eragin dezaketen. Etengabe ebaluatzen dugu jendearen aberastasun-maila, zer auto duten, zer etxetan bizi diren, zer arropa daramaten eta abar begiratu. Hala ere, norbanako bat gure hierarkia sozialetan sailkatzea ez da izaten esklabotzan edo kastetan oinarritutako estratifikazio-sistemetan bezain erraza. Norbait zein klasetan dagoen zehazteko, soziologoak metodo objektiboan oinarritzen dira, oro har.

Gizarte-klasea neurtzeko metodo objektiboan, hein handi batean estatistikako kategoriatzat hartzen da klasea. Ikertzaileek zenbait irizpideren arabera sailkatzen dituzte norbanakoak gizarte-klaseetan: adibidez, lanbidea, hezkuntza, diru-sarrerak eta bizilekua.


Klase sistema industralizazioarekin lotuta dago. Marxek ondasun ekonomikoaren arabera gizartea 2 klase bereizi zituen burgesia eta proletargpa( langileak eta jabetzarik gabekoak). Weberrek, estatu desberdinak 3 elementu desberdinez osatuta dagoela zioen, klasea (ondasun maila, jabetzak...), estatusa (Ospea, ahalmen mediatikoa izatea...) eta boterea ( botere politikoa izatea) desberdindu zituen.

Garai berdinean, ikuspegi funtzionalista sortzen da eta bat honek bat egiten du klase sozialekin. Ikuspegi funtzionalista meritokraziarekin lotu dezakegu, hau da lanbide desberdinen arabera, ordainsaria desberdina da funtzioaren arabera. Esfortzuaren arabera lanbideak modu batean edo bestean ordaindu behar dira meritokraziaren ustez.

Gaur egun, estratifikazio sistema aldatu egin da, lan espezializazioa dago, horrek eragiten du gure gizarteeab lanbideen inguruan aniztasuna egotea eta ardura mailak ezberdinak egotea. Bitartekari asko daude, jefea, langilea eta erdian gehio. Gure klase sisteman zenbait lelo daude klase sistemak mantentzeko. Tresnak daude norberaren posizioa hobetzeko, hala nola, tituluak, kualifikazioak, hezkuntza...


Kalase sistema estratifikazio oso konplexua da, kapitalen pilaketa konplexua da (Ekonomia, kulturala, soziala eta sinboikoa)Gure testuinguruan nahiko nahastuta daude kapital hauek eta oso argia da gure klase sisteman. Estratuak identifikatzeko bi neugarri daude. Alde batetik, Lanbideak eta bestetik, ikasketa mailak.

Populazio gehiena estratu ertain eta baxuetan kokatu egiten da, hala ere krisi garaietan klase ertaina posizioz jaisten da eta gizarte bazterketa nabarmen areagotzen da ( langabezia, etxebizitza eskuratu eta mantentzeko zailtasunak, laguntzen murrizketak, elkartasun sareen ahulezina...) aberatsak aberatsagoak bihurtzen dira eta pobreak pobreagoak.




## 1.GRAFIKOA: Adinaren arabera paro tasa

2012an piko handitu egin zen, Langabezi tasa nagusiago bat, 16-19 artean kokatzen da gazteen artean %74. Ez idtuzte ikasketa ertainak lortu eta erraztasun handiagoa dago langabezian egoteko. Ikasketarren mailaren arabera langabezia tasa handitu. 25-29 urte bitartean gehienez %31 da.



## 2.GRAFIKOA: Non bizi dira gazteak

Gehienak gurasoen etxeetan, iaksketetan bagaude ez dago hainbeste diru. Langabezi tasak ez dago bermatuta etxe bat izateko. Bigarrena alkilerrak.



3. GRAFIKA: Diru sarrera nahiko ez izatea gehienbat da. Bestea baliabide porporirik ez izatea. Bestea lan oreka hori ez izatea, etengabe lanaz aldatzea inestabilitate batean bizitzen.

Gaur egun gure klase sistema eboluzionatu eta arazo berrial sortu dira, paro tasak handitzen doaz eta bazterketa soziala gehio handitzen doa. Lana gutxi batzuen pribilegioa izango da besterik ez. Lan publikoa gero eta murriztuagoa da, estatua enplegatzaile handiena zen duela gutxi arte. Langileria inoiz baino prekarioagoa da eta lana eukitzea ez da ongizatearen adierazlea, izan ere, 1000 euro baino gutxiago kobratu egiten da hilean oso baldintza txarretan...

Lanaren ezaugarriak:

- Lan bat izatea ez du bermatzen kotxea edo gure kabuz bizirauteko
- 1000 euro baino gutxiago normalean
- Baldintza txarrak: lan orduak, gehigarririk gabe, estatu alsatzeko oztopo nagusiak...
- Lehen mugikortasuna auritu genezake gaur egun ez da nahikoa lan bat izatea aurreko ezaugarriengatik.

- LEGIMITZATZE IDEOLOGIAK

Desberdintasunak zilegitzat hartzen ditu, desoreka eta hierarkia legitimitatzen da sinbolikoki ere. Behin eta berriro desoreka eguneratuak eta zabalduak daude, posizio onenetan daudenen interesak justifikatzeko. Beti entzungo dugu ez dira zalantzan jartzen, izan ere krisi egoeratan zalantzan jartzen dira.

- MERITOKRAZIA

Teorian, oso erakargarria den teoria da, berdintasuna zilegitzat hartzen duena, eta mugikortasuna soziala bermatzen da, esfortzuaren arabera. Meritokrazia ez ditu familiaren posizioa, kapitalak herentziak kontuan hartzen. Teorian aukera berdinak ikasteko, hezkuntza eta lan sisteman ahalegin handienak sarituak daude eta mugikortasun sozial handia da. Errealitatean, ez da guztiz meritokratikoa eta ez daude aukera berdinak ez kultura berdinak ez baliabide naturalak ere.

Adibidez oprretan pentsatzen dugunean ez da berdina estratuaren arabera nora joan pentsatzea? New yorkera? edo herrira? Jaiotzen garen momentuan gure estratua mugatzen gaitu baliabide batzuk izatera, zelako etorkizuna pentstazen dugun. Aukera ezberdinak tetuingurua eta estratuaren arabera. Meritokrazia ez du kontuan hartzen kapitala famialarena... eta diskriminazio estrukturalak daude pobreek langabezia badadue zuk baita eta aberatsej ana aurkitzeko errezagoa.

Ikuspegi funtzionalistak lanbidearen arabera diru sarrera konpentzaturia izan behar duela esfortzua kontuan hartuta esaten du. Hala ere, gure gizartean ez da horrela gertatzen. Adb, medikuak ez dute esfortzuaren ordainsaria jasotzen, aktoreek adibidez gehio kobratzen dute. Soldatak ez dira erabakitzen gizarteari egiten dion onuragatik, baizik eta ospea edo merkatal gunean duten salmenta kopuruaren arabera. Adibidez, abeslariak.

Meritokraziaz aparte, beste diskurtso batzuk aurkitzen ditugu. Hala nola, langabezia daude nahi dutelako, benetan lan nahi duenak aurkizen du... Askotan esaten da aukera anitzak daudela lan merkatuan eta jendeaj ez duela benetan enprendedor izan nahi, edo inoiz baino aukera gehiago daudela.

★ GIZARTE KLASEEN EGITURA GAUR EGUN

Krisi garaian, klase sozialen irudikapena piramidala da. Klase ertaina gutxitzen da eta desberdintasunak ikusten dira.

